

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da zure bezeroa?

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroak, erosleak dira, hau da, gure web orrian erosten dutenak, dendak ez dira gure bezeroak, biok elkarlanean egiten baitugu lan. Bezero horiek edozein izan daitezke, ez dute ezaugarri berezirik. Denda horietan erosi ohi duten eta orain pandemiaren arazoa dela eta denda horietan erosi ezin duten bezeroei denda horietan erosten jarraitzea ahalbidetzea besterik ez dugu nahi. Bezeroa edozein izan ahal da, baina gehienbat herriko jendea izango da, askotan, zentro komertzietara joaten gara erostera, merkeago delako, baina horrela jarraitzen badugu, enpresa handiak gero eta diru gehiago irabaziko dute, malgutasun gehiago, eta txikiak gutxiago, honekin ezingo dute konpetitu. Horregatik gure ideiak herriko erosketak bultzatzea bilatzen du, ideia honekin jende askok bat egingo du eta bezero lehialak izan ahal dira.

Askotan herri-dendetako prezioak oso altuak dira, baina gure laguntzarekin salmentak gora eginez, prezioak merketu egingo dira, eta honekin bezero gehiago gerturatuko dira.

Azken finean gure proiektuak ez du merkaturia segmentatzen, ez baitugu bezero zehatzik, herriko hainbat denda izatean euren produktuak salduko dituztenak, bezeroa edozein izan daiteke, eta denetariko bezerok edukiko ditugu, hau da gure merkaturia masiboa izango da.

